

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktuaren helburua, nagusiki, bezeroari praktikotasuna eta segurtasuna eskaintzea da. Hainbat ideia desberdin pentsatu ondoren, erabaki genuen kandadua irekitzeko hatz-marka erabiltzea. Horrela, bezeroak erraz ireki ahal izango du eta ezin izango du beste inork ireki.

Praktikotasunarekin jarraituz, pentsatu genuen agian egokia izango litzateekela pertsona bat baino gehiagok erabiltzeko ahalmena izatea, modu horretan erabilera handiagoa eman ahal izateko.

Alde batetik, hatz-markak erregistratzeko, ordenagailuan jadanik sortutako pasahitza sartuz gero, hatz-marka bat edo gehiago erregistratu izango genuke. Horretarako funtsezko baliabideetan espezifikatzen dugu nola egin dezakegun.

Horrez gain, gure kandaduak bateria bat du. Bateria kargatzeko, giltza moduko kargadore bat izango du, eta kargadore hori, aldi berean, kandadua apurtuz gero, ohiko giltzak bezala funtzionatuko du.

Bukatzeko, esanguratsua izan daiteke kasuren batean lapurketaren bat egongo balitz, hatz-marka erabiliz bitan pultsatu ondoren, zuzenean poliziarekin kontaktuan jarriko litzatekela.